Xedapen Orokorrak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4643

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko dekretuarena: «218/2010 Dekretua, uztailaren 27koa, nekazaritza, elikadura eta arrantzaren arloan ikerketa, garapena eta berrikuntza laguntzeko».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan egindako hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira nekazaritza, elikadura eta arrantzaren arloan ikerketa, garapena eta berrikuntza laguntzeko uztailaren 27an eman zen 218/2010 Dekretuan (2010eko irailaren 22ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 183. zk.). Hori dela eta, zuzenketa hauek egin behar dira:

2010/4370 (7) orrialdean, 5. artikuluaren 3. paragrafoan (nola euskaraz hala gaztelaniaz), honako hau dioenean:

«Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritza»,

Honakoa esan behar du:

«Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritza».

2010/4370 (20)orrialdean, 15. artikuluaren 2. paragrafoaren b) idatz-zatian (nola euskaraz hala gaztelaniaz): 3) azpizatiak 3. paragrafoa izan behar du, 4) azpizatiak 4. paragrafoa izan behar du, eta 5) azpizatiak 5. paragrafoa izan behar du.

Eranskinean, 2010/4370 (29 eta 39) orrialdeetan (nola euskaraz hala gaztelaniaz), «Eskabide Eredua»n, «Ondokoa eskatzen du» dioen atal ilundutik ezabatu egin behar da «Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2009ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez».

Eranskinean, 2010/4370 (34 eta 44) orrialdeetan (nola euskaraz hala gaztelaniaz), (3) zenbakia duen orri-oinean, ezabatu egin behar da «…eta enpresa, entitate edo erakundearen plantilakoak ez diren …»

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

4643

CORRECCIÓN DE ERRORES del Decreto 218/2010, de 27 de julio, de ayudas a la investigación, desarrollo e innovación del sector agrario, alimentario y pesquero.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, de 23 de diciembre, del Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en el Decreto 218/2010, de 27 de julio, de ayudas a la investigación, desarrollo e innovación del sector agrario, alimentario y pesquero, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 183, de 22 de septiembre de 2010, se procede a su corrección:

En el párrafo 3 del artículo 5, en la página 2010/4370 (7/48) (tanto en castellano como en euskera), donde dice:

«Dirección de Innovación y Desarrollo»,

Debe decir:

«Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias».

En el apartado b) del actual párrafo 2 del artículo 15, en la página 2010/4370 (20/48) (tanto en castellano como en euskera), la subdivisión de este apartado que está numerada como 3), debe pasar a ser el párrafo 3; la subdivisión 4) debe pasar a ser el párrafo 4; y la subdivisión 5) debe pasar a ser el párrafo 5.

En el anexo, en la página 2010/4370 (29/48 y 39/48), (tanto en castellano como en euskera), en el «Modelo de solicitud», en la parte sombreada que indica «solicita» hay que eliminar «convocadas por Orden de 5 de febrero de 2009, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación».

En el anexo, en la página 2010/4370 (34/48 y 44/48) (tanto en castellano como en euskera), en el pie de página indicado con el número (3) es necesario eliminar «…y que no formen parte de la plantilla de la empresa, entidad u organismo solicitante».